


INFLAZIOA

Argindarraren fakturak erregistrorik altuenera 2011tik eraman du KPIa

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Argindarraren prezioen goranzko joera etengabeak %3,3ra eraman zuen abuztuko KPIa urte arteko tasan, hots, aurreko hilabeteko tasa baino lau hamarren gorago. Hori horrela izanda, inflazioak zortzi hilabetez jarraian tasa positiboak kateatzen ditu. 2011ko maiatzetik ez zen lortzen balio altu hori, hileko hartan prezioak %3,4 igo baitziren.


KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2019	2020	2021eko abuztua	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	1,0	-0,1	3,3	3,3
Azpiko inflazioa (%80,5)	1,0	0,8	1,0	0,8
- Elikagai landuak (%16,7)	0,6	1,7	1,4	0,2
- Industria ondasunak (%23,6)	0,3	0,3	1,1	0,3
- Zerbitzuak (%40,2)	1,6	0,8	0,7	0,3
Hondar inflazioa (%19,5)	0,8	-4,0	12,9	2,5
- Landu gabeko janariak (%9,5)	1,3	4,0	2,4	0,2
- Energia (%10,0)	0,4	-9,4	22,8	2,3


AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



BRENT MOTAKO PETROLIO UPELAREN EGUNEKO PREZIOA

Dolarrak upeleko



Zalantzarik gabe, argindarraren prezioaren igoera KPIaren gorabeheren osagai aldakorrena eta erabakigarriena bihurtu da, handizkako merkatuan gertatzen ari den argindarraren prezioaren gorakadaren ondoren. Horregatik guztiagatik, etxebizitzaren prezioen urte arteko aldakuntza %11,6 izan zen, uztaillean baino 2,2 puntu handiagoa. Goranzko presio horri erregaiek eragin zutena gehitu zitzaion, %16,5eko gorakadarekin, petrolioaren prezioaren igoeraren ondorioz, nahiz eta egia izan

nahiko egonkor mantendu zela. Erregaien garestitzearen egungo testuinguruari gehitu behar zaio lehengaien gorakada nabarmena, hornidura kateetan izandako etenaldiek eraginda; hala, garraio taldeari bi aldiz eragin zioten, eta, horrela, hiru hamarren igo zen aldakuntza, %8,5era arte. Azkenik, elikagaien eta alkoholik gabeko edarien taldeak ere lagundu zuen inflazioa handitzen, urteko tasa %2,0 izan baitzen, batez ere fruta freskoaren prezioak gora egin zuelako (%3,7).

KPI TALDE NAGUSIAK

Urte arteko aldakuntza tasa. 2021eko abuztua

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	3,3	3,3	3,0
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	2,0	1,9	1,9
Edari alkoholik eta tabakoa	-0,2	-0,2	2,3
Jantziak eta oinetakoak	1,1	1,1	3,6
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiek	11,6	11,5	5,2
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	2,1	0,8	2,0
Osasuna	0,7	0,7	0,4
Garraioa	8,5	8,8	7,4
Komunikazioak	-3,0	-3,1	0,1
Aisia eta kultura	-0,9	-0,6	-0,5
Hezkuntza	0,6	-0,2	0,2
Jatetxeak eta hotelak	1,6	1,3	2,1
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	1,6	0,9	2,0

Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.